

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2005EKO ABENDUA


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduera %10,4 hazi zen 2005eko abenduan

Datu horien arabera, Industri Produkzioaren Indize Orokorra %4,0 gehitu zen 2005. urtean.

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2004ko abenduaren aldean %10,4 hazi zen 2005eko abenduan. Energia elektrikoak eta garraiorako materialak eragin dute abenduan izan zen urte arteko hazkunde hori. 2005. urte osoko hazkunde-tasa metatua, aurreko urtearen aldean, %4,0koa izan zen.

2005eko abenduan, eta aurreko urteko azaroaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %0,8 hazi zen baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



Iturria: Eustat

Sektoreen araberrako bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusien sailkapena kontuan hartuta, 2005eko abenduko indizearen bilakaerak (2005eko abenduaren aldean) hurrengo aldakuntzak izan zituen: urte arteko hazkunde tasarik handiena energian eman zen (%21,7), gero ekipamenduko ondasunetan (%12,8); kontsumo-ondasunek %8,7ko hazkunde izan zuten, eta horien artean kontsumo-ondasun iraunkorren urte arteko hazkunde %7,2koa izan zen eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrena %9,4koa. Tarteko ondasunek ere izan zuten urte arteko aldakuntza positiboa, %5,1ekoa alegia.

2005eko abenduko hilabete arteko aldakuntzak (urte bereko azaroaren aldean) zeinu ezberdina izan du industriako sektore nagusienetan. Maila ezberdinekoak izan arren honako sektoreek hazkundeak izan zituzten: energia (%5,5), kontsumo-ondasunak (%1,5) eta tarteko ondasunak (%0,9). Aitzitik, ekipamenduko ondasunak %2,6 gutxitu ziren.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen abenduko urte arteko bilakaerak positiboak izan ziren hiru lurralde historikoetan; Bizkaian %12,3 hazi zen, Araban %10,6 eta Gipuzkoan %8,1. Hilabete arteko hazkunde-tasak, aldiz, Bizkaian (%2,3) eta Gipuzkoan (%0,5) gehitu egin ziren baina Araban %1,3 murriztu.

2005. urteko balantzea

2005. urteko balantzeari dagokionez, Industri Produkzioaren Indizeak %4,0ko hazkunde metatua izan zuen aurreko urtearen aldean.

Industriako sektore handi guztiek, kontsumo-ondasun iraunkorrak izan ezik, aldakuntza positiboak izan zituzten urteko metatuan. Ekipamenduko ondasunak %5,7 hazi ziren, energia %3,3, tarteko ondasunak %2,4 eta kontsumo-ondasunak, orokorrean, %0,6. Azken hauen artean, kontsumo-ondasun ez iraunkorrak %1,1 hazi ziren baina kontsumo-ondasun iraunkorrak %0,3 gutxitu ziren. Hori guztia, betiere, 2004. urtearekin erkatuta.

2005. urteko aldakuntza metatuak positiboak izan ziren hiru lurralde historikoetan; Arabak %3,2ko hazkundera izan zuen, Bizkaia %4,3koa eta Gipuzkoak %4,0koa.

Taula: 2005EKO ABENDUA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	abe05/abe04	At/At-1 (1)	abe05/aza05	aza05/urr05
Indize orokorra: Euskal AE	10,4	4,0	0,8	2,1
Araba	10,6	3,2	-1,3	2,6
Bizkaia	12,3	4,3	2,3	1,7
Gipuzkoa	8,1	4,0	0,5	2,2
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	8,7	0,6	1,5	4,0
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	7,2	-0,3	0,7	4,1
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	9,4	1,1	1,8	3,9
Ekipo-ondasunak	12,8	5,7	-2,6	5,0
Bitarteko ondasunak	5,1	2,4	0,9	0,6
Energia	21,7	3,3	5,5	-2,6

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin erkatuta.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp